THINK TANK

Etorkizuneko lanari buruzko eztabaida prozesua: 3. lan dokumentua

(2020ko irailaren 24a)

GIZARTE POLITIKEN BIRAKETA ESPERIMENTALA

1. Hausnarketarako testuingurua

1.1. Zahartzea eta iraupen luzeko zainketak

2031. urtean, Gipuzkoako biztanleen % 46k 55 urte baino gehiago izango dituzte, eta 35 900 pertsonak mendekotasun mailaren bat izango dute. Gaur egun, adinekoen zaintzan gero eta garrantzitsuagoa da zerbitzu profesional publiko eta pribatuen presentzia, nahiz eta oraindik ere familiak izan zaintza horien protagonista, eta, horrela, eredu misto bat eratzen da, batez ere, etxez etxeko zerbitzuak/egoitza zerbitzuak binomioan oinarrituta (mendekotasuna oso handia denean), Gipuzkoan eraldaketa prozesu interesgarria jasaten ari dena.

Iraupen luzeko zainketak honela uler daitezke: zaintzaile informalek (familiak, lagunak edo bizilagunak) edo profesionalek (osasun arlokoak, sozialak eta bestelakoak), edo biek, egiten dituzten jardueren multzoa, bere burua zaintzeko erabat gai ez den pertsona batek ahalik eta bizi kalitaterik onena izan dezan, norberaren lehentasunen arabera, ahalik eta independentzia, autonomia, parte-hartze eta errealizazio pertsonalik handienarekin, giza duintasuneko baldintzetan (OME). Hala, iraupen luzeko zainketak ahalik eta bizi kalitate onena lortzen laguntzen duen eredu batean oinarrituta garatzen dira.

1.2. Ikuspegi ekosistemikoa agertzea

Azken urteotan argi eta garbi agertu da pertsona xede duen arreta eredua bultzatzeko beharra, ikuspegi ekosistemikotik. Horrela, esperientzia pilotuak identifikatu daitezke, iraupen luzeko zaintzak behar dituzten pertsonen laguntza premiak asetzen dituzten hainbat eragile profesional eta informal barne hartzen dituztenak: Osasun zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, ekimen komunitarioak, ekintza boluntarioa, hurbiltasun zerbitzuak, ingurune fisiko atsegin eta irisgarrien orientazioa eta diseinua, behar espezifikoetara egokitutako teknologien garapena eta integrazioa (teknologia digitalak, domotika, robotika, etab.), laguntza psikologikoa familiako zaintzaileentzat, prestakuntza ereduak birplanteatzea zaintzako profesionalentzat eta profesionalak ez diren pertsonentzat (familiak eta beste batzuk).

«Kasuen kudeaketa» lan ikuspegi bat da, pertsonen eta familien arretaren eta laguntzaren jarraipena bermatzen duena iraupen luzeko zainketek irauten duten bitartean. Metodologia horrek aukera ematen du hainbat gizarte prestazio publiko, pribatu eta komunitario zeharka kudeatzeko, zaintza eta arreta beharretara egokituta (osasun, gizarte eta familia arlokoak). Zaindutako pertsonaren autonomia eta bizi kalitatea sustatzera bideratutako ikuspegi praktikoa da.


2. Esperimentazioa eta gizarte politikak

1. irudiak zirkuitu bat proposatzen du esperimentazioaren eta gizarte politiken arteko harremana egituratzeko.

1. Ebidentzia sortzea. Proiektu esperimentalak gauzatzea estrategia garrantzitsua da ebidentziak sortzeko. Proiektu esperimentalek kausazko harremanak balioesteko aukera ematen dute, ex ante/ex post metodologien, kontrol taldeen eta esperimentazio taldeen bidez.

2. Ebidentzien laburpena. Proiektu esperimentalen helburua ez da soilik kausazko harremanak ezartzea edo ulertzea, baizik eta, batez ere, gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak eta komunitate zerbitzuak konektatuko dituzten «zerbitzu berriak» diseinatzea edo «dauden zerbitzuak hobetzea», pertsona ardatz duten arreta ereduetan oinarrituta. Proiektuen emaitzak zerbitzuen edo produktuen prototipoak dira, eragile pribatu, publiko edo komunitarioek ulertu eta egokitu/har ditzaketen gidetan adieraziak.

1. IRUDIA: EBIDENTZIAK SORTZEKO, KUDEATZEKO ETA INPAKTUA IZATEKO ZIRKUITUA



3. Ebidentziei buruzko txostena. Proiektu esperimentalen emaitzak zerbitzu ereduak dira (sozialak, teknologikoak, osasun arlokoak, komunitarioak, etab.), eta politiken kudeatzaileen

(egingarritasuna), erakunde soziosanitarioen kudeatzaileen (egokitasuna) eta erabiltzaileen (erabilgarritasuna) ikuspegitik baliozkotu behar dira.

4. Zerbitzuak diseinatzea eta testatzea. Sistema soziosanitarioko funtsezko eragileek baliozkotutako zerbitzuak «esperientzia pilotu» gisa eskalatzen dira, eta horietan, baldintza errealetan, aurreko etapetan ebidentzian oinarrituta diseinatutako zerbitzuen egingarritasuna aztertzen da.

5. Eragina ebaluatzea. Esperientzia pilotuetan testatutako zerbitzuak (testuinguru errealak) erabiltzaileen ikuspegitik (zerbitzuen erabilgarritasuna), egingarritasunetik (kostua-onura) eta konektagarritasunetik (beste zerbitzu batzuekiko artikulazioa, ekosistema) ebaluatzen dira.

6. Zerbitzuak inplementatzea. Azken fasean, testatutako (testuinguru errealak) eta ebaluatutako (egingarritasuna eta konektagarritasuna) zerbitzuek aukera emango dute zerbitzu hori lurralde ingurune bateko zerbitzu soziosanitarioen eskaintzaren barruan sartzeko.

3. Hausnarketarako gonbidapena

Horiek horrela, irailaren 24ko bileran honako gogoeta hauek lantzea espero da:

1. Arreta eta zaintza eredu berriak. Zeintzuk dira etorkizuneko erronka nagusiak?

2. Zer esperimentazio agenda behar da?

3. Zein dira prozesu esperimentaletatik espero diren emaitzak?

4. Nola lotu gizarte esperimentazioa gizarte politikekin? (ikasteko tresnak)